

## GOIZEKO LEHEN HATS-ALDIA

Untsa pentsatuta,  
Goizeko lehen hats-aldia da, egunero,  
Harrigarriena.  
Lotarik jalgitzen naiz  
Eta mundua, ohoina bezala,  
Bularretarik sartzen zait, ebaska.  
Ardura, harriturik nago iratzartzean.

Kanpoan egun argi da.  
Baratzera noa, oin-hutsik.  
Iziturik, uzkinazoa hegaldatzen da sagar gorritik,  
Xixtu batez erranez kexu dagoela.

Lurra beroa da, belarra zukoa oin-azpian.  
Iguzkiak joiten du nahiz ez den oraino eguerdi.  
Argi zuri batez aireari su emaiten dio.  
Baratzea hanpaturik dago  
Bero handiko egun baten hats epelean.

Nire aitamek «buru motz» deitzen ninduten tipian.  
Galdezka nindabilan beti;  
Heiek astirik ez,  
Ihardespenik ere ez, menturaz.

Goiz honetan, mundua etxeko atean dago,  
Gora, gotor, sendo.  
Ez da nihoren beha.  
Mementoan ez dut galderarik:  
Mundua hortxe dago, usain-ontzi bat iduri.  
Ehungarren hats-aldia, nunbait han, bera barnera doa, ni gabe.  
Mundua iragaiten da, geldirik.

Jon Cazenave

---

### LA PREMIERE RESPIRATION DU MATIN

Tout bien considéré, / La première respiration du matin est, chaque jour, / La plus déconcertante. / J'émerge du sommeil / Et le monde, comme un voleur, / S'introduit en moi par les poumons, à l'improviste. / Souvent, je suis sidéré au réveil. / Dehors, il fait grand jour. / Je vais au jardin, pieds nus. / Apeuré, le geai s'envole du pommier rouge, / En disant dans un sifflet qu'il est mécontent. / La terre est chaude, l'herbe sèche sous les pieds. / Le soleil cogne bien qu'il ne soit pas encore midi. / Il embrase l'air d'une lumière blanche. / Le jardin est gonflé / Dans l'haleine tiède d'un jour de grande chaleur. / Mes parents m'appelaient «petite tête» quand j'étais petit. / Je ne cessais de poser des questions; / Eux n'avaient pas le temps, / Pas de réponse non plus, peut-être. / Ce matin, le monde est à la porte de la maison, / Haut, fort et en pleine santé. / Il n'attend personne. / Pour l'instant je n'ai pas de question: / Le monde es là, semblable à un flacon de parfum. / La centième aspiration, approximativement, s'engouffre seule, sans moi. / Le monde passe, immobile.